

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetza

Elkarteen etxeetako udal lokalak egoitza gisa erabiltzen uzteko eta bertako armairuak esleitzeko oinarriak eta deialdi publikoa ebaztea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran, Simone de Beauvoir, Rogelia de Álvaro eta Itziar elkarten etxeetako lokalak egoitza gisa erabiltzen uzteko eta armairuak esleitzeko oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen.

2019ko urriaren 18an amaitu zen deialdi horretarako eskabideak aurkezteko epea.

Organo instrukzio-egileak -Partaidetza Zerbitzuko teknikariez osatua- deialdiaren oinarrietan eskatutako eta aurkeztutako dokumentazioaren balorazio tekniko egin zuen, eta deialdiaren laugarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen ziren aztertu zuen.

Urtarrilaren 14an egin zuen espazio uzteko baimena emateko eta armairuak esleitzeko proposamena (dosierrean jaso da).

Eranskinean banan-banan adierazi dira erakunde eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa eta elkarten etxeko espazioaren erabilera eta armairuen esleipena; baita hainbat eskabide atzera botatzeko proposamena ere, horren arrazoiak emanez.

Kontuan hartuta Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onesten duen 1372/1986 Dekretuan arautua, eta kontuan izanda Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legean ezarritakoa, Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamena egin dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki proposamena

Lehena: Elkarten etxeko espazioa edo armairua erabiltzeko baimena ematea jarraian adierazten diren erakunde herritarrei, bi urterako (2020ko urtarrilaren 1etik hasita) eta beste birako luzatzeko aukerarekin, ebazpen honen eranskinean adierazitakoarekin bat:

ACCEM

ADPA-ADBE, animaliak zaindu eta babesteko elkarteak

AFANIS

ALCONDES, Euskadin eskusio-egoeran dauden pertsonen laguntzeko elkarteak

AMAPASE

APREJUAL, Aurretik Erretiratuen eta Erretiratu ez Boluntarioen Arabako Elkarteak

Arabagara, euskaldunon elkargunea

Arabako eskaut taldea

Arabako pentsionistak lanean

Aranako eskaut taldea

ASVE – solidaridad vasco ecuatoriana elkarte
Arabako Errepublikar Ateneo elkarte
Awake Gasteiz elkarte
Kolonbia-Euskadi elkarte
Afrika-Euskadi kultur elkarte
Azanea Africa lankidetza elkarte.
Emakumeak Aniztasunean elkarte
Mugarik gabeko emakumeak elkarte
Naizarai txistu taldea
KOKUK elkarte
Lautada Abesbatza kultur elkarte
“Enfermeros del Sahara” euskal osasun elkarte
ASOVELANA, Venezuelatarren Arabako elkarte
ATEA, animaliei tratu etikoa ematearen aldeko elkarte
AVAIM, Tratu txarrak jasotako hurren laguntzarako euskal elkarte
AYAM elkarte, yoga, autoezagutza eta meditazioa
Bai euskarari ziurtagiriaren sustapenerako elkarte
Caminando por las estrellas denbora-bankua
Besartean, hazten laguntzeko elkarte
Ceiba, Ekuatore Gineako kultur elkarte
Blusen eta Nesken Batzordea
Euskadiko GGKEen Koordinakundea
Ekologistak martxan Araba
Eoncult kultur elkarte
Arabako Abesbatzen Elkarte
Gauekoak elkarten federazioa
María de Maeztu forum feminista
Fotogasteiz, Gasteizko argazkilarien elkarte
Mundubat fundazioa
GADEN, grupo alavés de defensa y estudio de la naturaleza
Gasteizko biziklteroak – ciclistas urbanos de Vitoria-Gasteiz
Gaubela, Gasteizko patinatzaileen elkarte
GEU, Gasteizko euskalduna elkarte
Goizargi emakumeen elkarte
Euskadiko Otso Taldea
Gure soroa

Haaly Pular Vitoria-Gasteiz

Harresiak Apurtuz, etorkinei laguntza emateko GKEen Euskadiko koordinakundea

Haurralde fundazioa

Ikbal Masih, mugarik gabeko solidarioak

Iturri gorri elkarlan

La cuadri Gasteiz, bakardade arazoak dituztenei laguntzeko elkarte

Martin Ttipia kultur elkarte

Mugarik gabe

Nazioarteko Elkartasuna -Solidaridad internacional

Por una vida digna - Bizitza duinaren alde

Slow Food – Convivium Araba-Álava

Arabako Astronomia Elkarte

TDEX-almendra medieval, ezagutza zabaltzeko elkarte

Ume alaia Araba

Urte der, gerontologia elkarte

Vespa club

Oinarrien 12. puntuan –elkarteen etxeak erabiltzeko baldintzak – ezarritako baldintzetan ematen dira baimenak.

- Elkarteen etxeetako lokalak eta armairuak erabiltzeko baimena lortzen duten erakundeek bertako erabilera- eta elkarbizitza-arauak bete beharko dituzte –Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez onetsiak–, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritako betebeharez gain.

- Baimena doakoa izango da, eta ez da bermerik aurkeztu beharrik izango.

- Udalari dagokio lokala onik zaintzea, eta hobekuntza edo aldaketak egitea. Halakorik behar izanez gero, eskabide arrazoitua egin beharko da, eta aurreikusitako diru-kopurua adierazi. Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak hala proposaturik, bideragarritasuna aztertuko du, eta garaiz eta idatziz erantzungo, horiek gauzaterik dagoen, baita ekimenaren ondorio ekonomikoak ere. Edonola ere, ez da baimenduko eraikinean edo bertako edozein gelatan obrarik egitea, ez bada Udalak berariazko baimen idatzia emanda.

- Erakundeek onik eta txukun zaindu beharko dituzte lokalak. Jaso zuten egoera berean itzuli beharko dute lokala, hura erabiltzeko aldia bukatzen delarik.

- Erabilera-baimena edo lagapena zergetatik –OHZ, zaborrak– salbuetsita egongo da, eta argindar- nahiz gas-kontsumoa Udalaren kontura izango da, baita ur-kontsumoa ere.

- Erakundeek beren gain hartzen dute ondasunaren erabilerak edo bertan egiten diren jarduerak behar lituzketen lizentzia eta baimenak aurretiaz eskuratzeko ardura.

- Erakundeek beren gain hartu beharko dute lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta beren jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteen aurrean erantzun. Lokala erabiltzeko baimena ematera mugatzen da Udala, eta ez du egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko erantzukizunik bere gain hartuko, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, elkarteari baitagokio erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea, eta baimenak iraun bitartean indarrean edukitzea. Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

Erakundeak Herritarren Partaidetzaren Zerbitzura bidali behar ditu kontratatutako aseguruen kopiak, horien eguneraketarenak barne, eta dagozkion ordainketa-egiaztagirien kopiak.

Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon gabe erabilera komuneko aretoetara sartzen diren kolektibo eta plataformak izango dira horiei egotz dakizkiekeen arrazoien edo hirugarrenen aurrean hartutako betebeharren erantzule, Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legaren 13. artikuluan xedatutakoarekin bat.

- Inolaz ere ezingo diote baimendutako erakundeek berek hartutako lekua beste inori alokatu edo utzi. Ezta irabazi-asmoz erabili ere.

- Erakundeak jakitun dira eta onartu egin beharko dute Gasteizko Udalak eskubidea duela lagapena bere kabuz baliogabetzeko, interes publikoa dela kausa, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako kasuetan, eta ez duela horregatik ordainsaririk eman beharrik.

- Baimendutako lokala ikuskatzeko eskubidea izango du Gasteizko Udalak, baimenean zehaztutakoaren arabera erabiltzen dela bermatzeko.

- Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.7 artikuluan jasotako gainerako betebeharrak.

Bigarrena. Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea "Ahórratelo -asociación para el ahorro y la gestión de las facturas de los servicios de libre competencia" elkarteari, bere estatutuek honakoa xedatzen dutelako: "elkartearen xedeak erabiltzaile/bazkideen asebetetzea bilatzen du" eta horrenbeste, ez da deialdi honen xede, deialdiaren oinarrien 3.1 atalean jasotzen denaren haritik. Horretaz gain, erakundeak ez du helbide sozialik edo ordezkartzarik Gasteizen (4. 1 c oinarria).

Hirugarrena: Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea ASCELi (otso iberiarra ikertu eta zaintzeko elkarte) baldintzak ez betetzeagatik, ez baitu Gasteizen helbide sozialik edo ordezkartzarik (4. 1 c oinarria).

Laugarrena. Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea ALDARTE elkarteari, Gasteizko udalak lokala utzia baitio Zapatari kaleko 39.ean, eta horrenbestez, ez baita deialdi honen xede (deialdiaren 3.3 oinarria).

Bosgarrena: Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea "Asociación española de afectados por encefalopatía epiléptica con punta de onda continua durante el sueño" elkarteari, helbide sozialik edo ordezkartzarik ez edukitzeagatik Gasteizen (4. 1 c oinarria).

Seigarrena: Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea Ausartak Abesbatzari, espazio hori abesbatzaren entseguetarako eskatu duelako, eta elkarteen etxeak ez daudelako teknikoki prestatuta horretarako.

Zazpigarrena: Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea Biook elkarteari, helbide sozialik edo ordezkartzarik ez edukitzeagatik Gasteizen (4. 1 c oinarria).

Zortzigarrena: Lokala edo armairua erabiltzeko baimena ukatzea Puntueus Fundazioari, Arabako Foru Aldundiak utzitako lokala izateagatik Apaizgaitegian, (deialdiaren oinarrien 3.3. puntua) eta helbide sozialik edo ordezkartzarik ez edukitzeagatik Gasteizen (4. 1 c oinarria).

Bederatzigarrena: Euskal Herriko Txistulari Elkarteak eta Naizarai Elkarteak aurkeztutako ukoa onartzea. Biek eskabide bateratua aurkeztu zuten; Euskal Herriko Txistulari elkarteak oinarrien 4.1.c baldintza betetzen ez zuenez, uko egin zion eskabideari Naizarai Elkartearen alde, honek baldintza guztiak betetzen baitzuten.

Hamargarrena: Elkarte interesdunei ebazpenaren berri ematea oinarri orokorretan jasotako moduan, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko

Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn iragartzen den egunaren biharamunetik hasita, edo, aukeran, berraztertze-errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik hasita; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 7an

Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS

ERANSKINA

ESPAZIOAK ERABILTZEKO BAIMEN-PROPOSAMENA

ELKARTEA	ETXEA	GELA	PROPOSAMENA	JUSTIFIKAZIOA	PUNTAUZIOA
ACCEM	Simone de Beauvoir	4.10	Espazio erabilera baimenduta		56
ADPA-ADBE, asociación para la defensa y protección de los animales	Rogelia de Álvaro	C-0.4	Espazio erabilera baimenduta		48,1
AFANIS	Simone de Beauvoir	3.3	Espazio erabilera baimenduta		47,4
Ahórratelo, asociación para el ahorro y la gestión de las facturas de los servicios de libre competencia			Ukatu baimena	Ez da deialdi honen xedea Ez du egoitza sozialik, ezta ordezkartzarik ere Gasteizen	0
ALCONDES, asociación de ayuda a personas en situación de exclusión en Euskadi	Rogelia de Álvaro	A-0.2	Espazio erabilera baimenduta		32,5
AMAPASE	Rogelia de Álvaro	A-0.1	Espazio erabilera baimenduta		62
APREJUAL, asociación de prejubilados y jubilados, no voluntarios de Álava	Simone de Beauvoir	4.7	Espazio erabilera baimenduta		51,35
Arabagara, euskaldunon elkargunea	Simone de Beauvoir	4.9	Espazio erabilera baimenduta		61,8
Arabako eskaut taldea	Itziar	0.2	Espazio erabilera baimenduta		33,15
Arabako pentsionistak lanean	Simone de Beauvoir	3.4	Espazio erabilera baimenduta		68,9
Aranako eskaut taldea	Itziar	0.2	Espazio erabilera baimenduta		31,8
ASCEL, asociación para el estudio y conservación del lobo ibérico			Ukatu baimena	Ez du egoitza sozialik, ezta ordezkartzarik ere Gasteizen	0
Asociación aldarte			Ukatu baimena	Ez da deialdi honen xedea	0
Asociación ASVE – solidaridad vasco ecuatoriana	Simone de Beauvoir	4.10	Espazio erabilera baimenduta		66
Asociación Ateneo republicano de Álava	Rogelia de Álvaro	A-0.1	Espazio erabilera baimenduta		36,4
Asociación Awake gasteiz	Simone de Beauvoir	4.7	Espazio erabilera baimenduta		40,2
Asociación Colombia-Euskadi	Rogelia de Álvaro	A-1.1	Espazio erabilera baimenduta		60
Asociación cultural África Euskadi	Itziar	1.3	Espazio erabilera baimenduta		52,8
Asociación de cooperación Azanea África	Itziar	1.3	Espazio erabilera baimenduta		53,95
Asociación de mujeres en la diversidad – Emakumeak anistasunean	Rogelia de Álvaro	A-1.2	Espazio erabilera baimenduta		69,6
Asociación emigrados sin fronteras	Rogelia de Álvaro	C-0.1	Espazio erabilera baimenduta		39,5
Asociación española de afectados por encefalopatía epiléptica con punta de onda continua durante el sueño			Ukatu baimena	Ez du egoitza sozialik, ezta ordezkartzarik ere Gasteizen	0
Asociación folclórica de txistu Naizarai	Itziar	0.2	Espazio erabilera baimenduta		20

ELKARTEA	ETXEA	GELA	PROPOSAMENA	JUSTIFIKAZIOA	PUNTAUZIOA
Asociación Kokuk	Itziar	1.1	Espazio erabilera baimenduta		46
Asociación musical Lautada Abesbatza	Itziar	T-10 y 11	Leihatila esleituta		21
Asociación Ausartak Abesbatza			Ukatu baimena	Teknikoki prestatuta ez dagoen helburu baterako eskatu du lekua	0
Asociación sanitaria vasca "Enfermeros del Sahara"	Itziar	1.2	Espazio erabilera baimenduta		36
ASOVELANA, asociación de venezolanos en Álava	Itziar	1.3	Espazio erabilera baimenduta		26,65
ATEA, asociación para un trato ético con los animales	Rogelia de Álvaro	C-0.1	Espazio erabilera baimenduta		60
AVAIM, asociación vasca para la ayuda a la infancia maltratada	Itziar	1.4	Espazio erabilera baimenduta		56,4
AYAM, asociación yoga autoconocimiento meditación	Itziar	1.4	Espazio erabilera baimenduta		36,4
Bai euskarari ziurtagiriaren sustapenerako elkarte	Rogelia de Álvaro	A-1.1	Espazio erabilera baimenduta		58
Banco del tiempo Caminando por las estrellas Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	C-1.2	Espazio erabilera baimenduta		54,6
Besartean, asociación de apoyo a la crianza	Simone de Beauvoir	4.5	Espazio erabilera baimenduta		55,8
Biok elkarte			Ukatu baimena	Ez du egoitza sozialik, ezta ordezkartzarik ere Gasteizen	0
Ceiba, asociación cultural ecuato-guineana	Itziar	1.2	Espazio erabilera baimenduta		11,7
Comisión de blusas y neskak	Rogelia de Álvaro	T-2	Leihatila esleituta		45
Coordinadora de ONG de Euskadi – GGKE elkarte	Simone de Beauvoir	3.1	Espazio erabilera baimenduta		84,6
Ekologistak martxan Araba	Rogelia de Álvaro	C-0.2	Espazio erabilera baimenduta		71,5
Eoncult asociación cultural	Itziar	0.4	Espazio erabilera baimenduta		39,65
Euskal Herriko txistulari elkarte			Ukatu baimena	Eskaerari uko egitea	
Federación alavesa de coros	Itziar	1.4	Espazio erabilera baimenduta		46,8
Federación de asociaciones Gauekoak	Itziar	1.1	Espazio erabilera baimenduta		53,5
Forum feminista María de Maeztu	Simone de Beauvoir	3.3	Espazio erabilera baimenduta		62,5
Fotogasteiz, asociación de fotógrafos de Gasteiz	Simone de Beauvoir	4.5	Espazio erabilera baimenduta		28,2
Fundación Mundubat	Rogelia de Álvaro	A-1.3	Espazio erabilera baimenduta		49,5
GADEN, grupo alavés de defensa y estudio de la naturaleza	Rogelia de Álvaro	C-0.1	Espazio erabilera baimenduta		63
Gasteizko biziklerteroak – Ciclistas urbanos de Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	C-0.2	Espazio erabilera baimenduta		72,6
Gaubela, asociación de patinadores de Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	A-1.3	Espazio erabilera baimenduta		32,4
Geu, Gasteizko euskalduna elkarte	Rogelia de Álvaro	C-1.1	Espazio erabilera baimenduta		67,5
Goizargi emakumeen elkarte	Itziar	0.4	Espazio erabilera baimenduta		31,2
Grupo Lobo euskadi	Rogelia de Álvaro	C-0.2	Espazio erabilera baimenduta		65,65
Gure soroa	Itziar	0.4	Espazio erabilera baimenduta		42,9
Haaly Pular Vitoria-Gasteiz	Simone de Beauvoir	3.4	Espazio erabilera baimenduta		54
Harresiak apurtuz, coordinadora de ONG de Euskadi de apoyo a inmigrantes	Simone de Beauvoir	4.6	Espazio erabilera baimenduta		73,2
Haurralde fundazioa	Simone de Beauvoir	4.5	Espazio erabilera baimenduta		50,5
Ikbal Masih, solidarios sin fronteras	Itziar	1.4	Espazio erabilera baimenduta		38,35
Iturigorri elkarlan	Itziar	1.2	Espazio erabilera baimenduta		62,4
La cuadri Gasteiz, asociación para la ayuda a personas con problemas de soledad	Simone de Beauvoir	4.8	Espazio erabilera baimenduta		21,45
Martin Ttipia kultur elkarte	Simone de Beauvoir	3.3	Espazio erabilera baimenduta		30,55
Mugarik gabe	Itziar	0.1	Espazio erabilera baimenduta		58,5

ELKARTEA	ETXEA	GELA	PROPOSAMENA	JUSTIFIKAZIOA	PUNUAZIOA
Nazioarteko elkartasuna - Solidaridad internacional	Rogelia de Álvaro	A-1.3	Espazio erabilera baimenduta		53
Por una vida digna - Bizitza duinaren alde	Simone de Beauvoir	4.7	Espazio erabilera baimenduta		59,15
Puntueus fundazioa			Ukatu baimena	Ez da deialdi honen xedea Ez du egoitza sozialik, ezta ordezkartzarik ere Gasteizen	0
Slow food – Convivium Araba-Álava	Simone de Beauvoir	4.6	Espazio erabilera baimenduta		57,6
Sociedad astronómica de Álava	Simone de Beauvoir	4.8	Espazio erabilera baimenduta		46,8
Tdex-Almendra medieval, asociación para la difusión del conocimiento	Simone de Beauvoir	4.8	Espazio erabilera baimenduta		44,2
Ume alaia Araba	Simone de Beauvoir	4.9	Espazio erabilera baimenduta		45,5
Urteder, asociación gerontológica	Rogelia de Álvaro	A-0.1	Espazio erabilera baimenduta		19,5
Vespa club	Rogelia de Álvaro	T-6	Leihatila esleituta		20,15